

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

357/2017 Foru Agindua, abenduaren 14koa, behin betiko onartzen duena Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espediente, udalerri horretako herriguneei dagokienez, betetzat ematen dituen abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, IB-13 sektorearen eta IB-10 arearen sailkapenari buruzkoak, eta betetzat ematen ez dituen azaroaren 30eko 308/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak, Oletako herriguneari buruzkoak

AURREKARIAK

Lehenengoa. Azaroaren 30eko 308/2016 Foru Aginduaren bidez, ez ziren betetzat eman abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduak, Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espediente partez behin betiko onartzen eta eteten duenak, ezarritako funtsezko baldintzak, ebazpen horren oinarrietan azaltzen diren arrazoiengatik.

Bigarrena. 308/2016 Foru Agindu horrek berak xedatze zatiaren hirugarren atalean erabaki zuen, behin haiek zuzendutakoan, espediente foru aldundira bidal zedila, berriz jendaurrean jartzeko izapidea egin beharrik gabe (salbu eta Oletako herriguneko hiru lurzoruaren sailkapenari buruzkoa, funtsezko izaera baitzuen), hark behin betiko onar zezan, betearazi beharrekotzat jo zezan, eginbideak egin eta argitara zedin.

Hirugarrena. 2017ko abuztuaren 3an Aldundi honen erregistrora heldu zen plan orokorraren funtsezko aldaketak jasotzen dituen dokumentua (2017ko uztaillean datatua), zeinetatik kanpo uzten den Oletako herriguneari buruzko zehaztapen oro. Horregatik, planaren behin betiko onarpenak, herrigune horri dagokionez, etenda jarraituko du, bat etorri 397/2012 Foru Aginduaren nahiz 308/2016 Foru Aginduaren xedatze zatiaren bigarren atalean azaldutakoarekin, eta betiere Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren eremua oso-osorik jasotzen duen testu bateratu koherente bat idazteko baldintzapean.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Aurkeztutako dokumentuaren azterketari dagokionez, egiaztatu da konpondu egin direla azaroaren 30eko 308/2016 Foru Aginduan adierazitako kontuak, Oletako herrigunearako eskatutakoak izan ezik, foru agindu horri erantzunez plan orokorraren funtsezko aldaketak jasotzen dituen dokumentutik kanpo utzi baitira herrigune hartako zehaztapenak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorra, Arabako Foru Aldundiak onartutako inbentarioaren barruan dauden udalerriko landa herriguneei dagokienez.

Bigarrena. Betetzat ematea abuztuaren 3ko 397/2012 Foru Aginduak, Aramaioko hiri antolamendurako plan orokorraren espediente partez behin betiko onartzen eta eteten duenak, ezarritako funtsezko baldintzak, IB-13 jarduera ekonomikoen sektorea lurzoru urbanizagarritzat eta IB-10 area hiri lurzorutzat sailkatzeari dagokionez.

Hirugarrena. Betetzat ez ematea Aramaioko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren espediente Oletako herriguneari buruz jasotako baldintzak, plan orokorraren funtsezko aldaketen dokumentutik kanpo utzi direlako herrigune horri buruzko aipamen guztiak eta, ondorioz, ez direlako betetzen zuzendu beharreko kontuak, 397/2012 Foru Aginduaren nahiz 308/2016 Foru Aginduaren xedatze zatiaren bigarren atalean azaldutakoaren arabera hartarako eskatuak.

Oleta herriari buruzko proposamena gertatu eta gero, Arabako Foru Aldundiari aurkeztuko zaio plan orokorraren zehaztapen guztiak barnean dituen testu bateratua, Oletako herriguneari dagozkionak behin betiko onartzeko eta horrela dokumentu bakarra edukitzeko.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

ARAMAIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN. OROKORRAK ETA BERARIAZKO ARAUAK

ARAU OROKORRAK

BIGARREN TITULUA. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

1.2.1 KAPITULUA. BAKARRA

1.2.1.2. artikulua. Hirigintza antolamendu xehatuko esparruak

1. Antolamendu xehatuko eremuak (edo AXEk) hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren eremua zehazten du, betiere plangintza orokorrean haren antolamendu xehatu uniforme egin bada, edo hala izan behar badu, plangintza orokor hori garatuz, plangintza xehatuaren bidez. Horrez gain, kontzeptu horrek lurzoru urbanizaezinean kokatuta dauden eta Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan definitutako hirigintza plangintzaren bitartez gauzatu behar diren sistema orokorrak ere barne hartzen ditu.

2. Antolamendu xehatuko esparru batean eremu pribatu edota publiko bat edo gehiago egon daitezke.

3. Hiri antolamendurako plan orokor honetan antolamendu xehatuko honako esparruak daude:

IBARRA

IB.01 Hirigune zaharra. Aramaioko Ibarra hirigune historikoaren eta eremu mugakide berrien B. E. P. B.

IB.02 Tipologia tradizionaleko bizitegi eremua. Ibargoia auzoa (R-14 zena).

IB.03 Garapen txikiko eraikuntza irekiko bizitegi zona. Ibargoia auzoa (R-5 zena).

IB.04 Ipar-ekialdeko garapen txikiko bizitegi eremua (R-6, R-7, R-16 eta R-17 zirenak).

IB.05 Tipologia tradizionaleko ipar-ekialdeko bizitegi eremua (R-12 zena).

IB.06 Tipologia tradizionaleko ipar-ekialdeko bizitegi eremua (R-11 zena).

IB.07 Garapen txikiko eraikuntza irekiko bizitegi zona (R-3 zena).

IB.08 Mendebaldeko eraikuntza irekiko bizitegi eremua (R-2, R-4, R-18, R-8 eta R-9 zirenak).

IB.09 "Likiniao baserria" tipologia tradizionaleko bizitegi eremua (partzialki R-15 zena).

IB.11 Hegoaldeko garapen txikiko Likiniao bizitegi eremua (R-1, R-15 eta GED zirenak).

IB.12 Ipar-mendebaldeko eraikuntza irekiko Errekazabal bizitegi sektorea.

OTXANDIO

OT.01 I.4 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.02 I.5 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.03 S. U. I. 5 industriagunea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

OT.04 "Mainondo" bizitegi sektorea (Otxandioko HAPOk araututako esparrua).

4. Kasu berezi gisa, egiturazko antolamenduko esparrua (EAE) hiri antolamendurako plan orokor honek definitzen duen hirigintza planeamenduaren bitartez gauzatuko ez diren sistema orokorrak dauden lurzoru urbanizaezineko esparrua da.

Komunikazio sistema orokorrari dagozkion honako egiturazko antolamendu esparruak definitu dira:

— Tren azpiegiturak: Abiadura Handiko Trena (AHT), euskal Y.

LAUGARREN TITULUA. PLANGINTZA GARATZEKO ETA GAUZATZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

1.4.3. KAPITULUA. PLANGINTZA GAUZATZEA

1.4.3.2. artikulua. Planeamendua gauzatzeko jarduketak: motak eta esparruak. Egikaritze unitateak

1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera, honako jarduketa hauek daude:

a) Jarduketa bakarrak: xede bakarra lurzatiak eta orubeak sustatzea dutenak, eta kasu batzuetan lurrak urbanizatzea ere bai, eraiki aurretik zein eraikuntza lanak egiten ari direla, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

Jarduera integratuekin alderatuz, desberdintasuna da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 11.3.a) eta 136. artikuluetan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/08 Dekretuko 40. artikuluan eskatzen den urbanizazio maila lortu duela eta, hornidura jarduerekin alderatuz, desberdintasuna da alde aurretik zegoen haztatutako eraikigarritasuna ez dela handitu.

b) Zuzkidura jarduketak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 137. artikuluan eta Hirigintzako Estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan deskribatu dira; beraien xedea haztatutako eraikigarritasuna gehitzen denean zuzkidura karga gauzatzea da.

Definizioz, urbanizazioak finkatutako eta haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoruan egiten dira; nolahi ere, banaka hartutako orubeei eta lurzatiei soilik aplikatzen zaizkie, zeren, zuzkidura karga askatu beharra alde batera utzita, jarduketa integratuei eskatzen zaien urbanizazio maila baitute.

c) Jarduera integratuak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 138. artikuluan eta lege hori garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/08 Dekretuko 42. artikuluan deskribatutakoak dira. Jarduera isolatuen edo hornidura jardueren definizioaren barruan sartzen ez diren eta sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduerak ez diren jarduerak dira.

Definizioz, urbanizazioak finkatu gabeko hiri lurzoruan eta sektorizatutako lurzoru urbanizagarrian egiten dira, jarduketa bakarretarako behar dena baino urbanizazio gradu baxuagoa duten lurretan; bakoitzean egikaritze unitate bat egon behar da gutxienez.

d) Sistema orokorren eta tokikoen sareetako zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 139. artikulua arabera, honako Hajek dira: zuzenean gauzatu daitezkeen eta, lurzoru, ondasunak eta eskubideak ez daudelako jarduketa integratuei atxikita, desjabetze bidez lortu beharra daukaten jarduketak.

Jarduera horien xedea da jarduera integratuei atxikita edo haietan sartuta ez dauden lurzoru mota guztien sistema orokorrak egikaritzea.

Bestalde, horien helburua izango da hiri lurzorian kokatuta dauden tokiko sistemak egikaritzea, betiere, jarduera integratuen barruan sartzea egingarria ez denean edo hornidura jardueri eta jarduera isolatuei eskatu ahal zaien doako lagapen kargaren barruan ez badaude.

2. Deskribatutako jarduerak irudikapen espaziala dute eta beren eremuak honela definitzen dira:

a) Jarduketa bakarren esparrua: jarduketa hauek hizpide duten irabazizko erabilera duten orube eta lurzati multzoa da, bai eta finkatutako hiri lurzorian dauden zuzkidurak ere.

Hiri antolamendurako plan orokor honetan P-6 "Garapenerako eta gauzatzeko araubideak" planoan irudikatu dira, grisez, beste zehaztapenik gabe, zuzkidura jarduketekin batera. Bi esparru hauen bereizkuntza eta, beraz, jarduketa bakoitza dela eta eragindako orubeen edo lurzatiaren bereizkuntza, banaka egingo da eraikuntza edo, kasuan kasu, partzelazio lanak egiteko baimena ematen den unean.

Jarduketa isolatuei dagokienez, eraikuntzako esku-hartze baterako hirigintzako baimena ematerako orduan frogatzen bada proposatutako eraikinaren eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatura dagoena baino handiagoa dela, lursailak haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzoruaren kategoria lortuko du eta, hortaz, zuzkidura jarduketako esparrua izango da.

b) Zuzkidura jarduketaren esparruak: Hiri lurzoru finkatu gabearen irabazizko erabilerako orube eta lurzati guztiak dira, jarduketa integratuetan sartuta ez badaude.

c) Jarduera integratuen (JI) eremua: jarduketa integratuetan haiei atxikita dauden lursail guztiak, publikoak zein pribatuak.

Hiri antolamendurako plan orokor honetako P-6 "Garapenerako eta gauzatzeko araubideak" planoetan ageri dira "Al. XX" identifikazioarekin (XX bakoitzaren hurrenkera zenbakia da). JI bakoitza AXE batekin bat etorriko da.

Oletako nukleoko OL.01 Antolamendu Xehatuko Esparrua salbuespena da, zeren nukleo horretarako garapen plangintzak lurzoru kategorizatu beharko baitu hiri lurzoru finkatua eta hiri lurzoru finkatugabea. Lurzoru finkatugabea, hain zuzen ere, jarduketa integratu bat edo hainbat gauzatuko dira.

d) Sistema orokorren eta tokikoen sareetako zuzkidura publikoak gauzatzeko jarduketaren esparruak (ZGJ): jarduera horiek hizpide dituzten lur eremuak barne hartzen dituzte.

Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan P-6 "Garatzeko eta egikaritzeko erregimenak" planoen seriean egongo dira zehaztuta banaka, eta "AED/AOP-XX" moduan identifikatzen dira, "XX" numerazio korrelatiboa izanik eta AOP dagokien Antolamendu Xehatuko Esparrua.

3. Egikaritze unitateak jarduera integratuak banatzen diren eremuak dira, eta horien xedea da azalera osoa lagatzeko, berdinbanatzeko eta urbanizatzeko eginkizunak modu bateratuan betetzen direla arautzea. Haien irismena, edukia eta mugaketa lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 144 eta 146. artikuluetan eta lege hori garatzeko presazko neuriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 42. artikuluan arautu dira.

Hiri Antolamendurako Plan Orokor honetan P-6 "Garatzeko eta egikaritzeko erregimenak" planoen seriean egongo dira zehaztuta banaka, eta "UE. AOP/XX" moduan identifikatzen dira, "XX" numerazio korrelatiboa izanik eta AOP dagokien Antolamendu Xehatuko Esparrua.

**BOSGARRENTITULUA. AZPIEREMU ERAIKIGARRIEN ERAIKUNTZA
ETA ERABILERAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEAK****1.5.2. KAPITULUA. HIRI LURZORU ETA LURZORU URBANIZA GARRIKO AZPIZONETAN
APLIKA DAITEZKEEN ERAIKUNTZA ETA ERABILERAREN ORDENANTZA OROKORRAK****9. Atala. Azpizona guztien baldintza orokor gehigarri komunak****1.5.2.26. artikulua. Zortasun aeronautikoen babes eremua**

P-1.1 eta P-1.1(2) "Azpiegitura orokorrak eta baldintzatzaile gainjarri gehigarriak" plano seriean grafiatuta geratu dira.

Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoei itxura egindako hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren eremuetan, eraikuntzek, instalazioek edo beste edozein jarduerak —elementu guztiak (hala nola antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire giro-tuko ekipamenduak, igogailu-kutxak, kartelak, arremate apaingarriak, baita halako eraikuntzen gaineko edozein gehigarria ere), horiek eraikitze beharrezkoak diren baliabideak (garabiak, etab.), lurra edo objektu finkoak (zutoinak, antenak, aerosorgailuak —palak barne-, kartelak, etab.), baita bideko-tako edo trenbideko galiboa ere— ez dituztela zortasun aeronautikoei urratzen ziurtatu behar da, akreditatuta gero dadinik ezean, Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziaren ustez, segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregulartasunari ez diola nabarmen eragiten, zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuan begietsitako salbuespenen babesean.

Apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuaren 10. artikulua babesean, zortasun aeronautikoko Gasteizko aireportuaren areako lurraldearen gaineko proiektzio ortogonalen barruan edukita azalera jardueraren mugaren zortasunari lotuta geratzen da. Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziak azalera hori barruan kokatzen diren jarduerak eta arrisku bat aireko operazioetarako edo irratiz instalazioen funtzionamendu zuzenerako ekar dezaketen jarduerak debekatu, mugatu edo baldintzapean jarri ahal izango ditu. Aipaturiko aukera ezarpenerako edo aipaturiko jardueren ariketarako ahalmena ematen dioten lurzoruaren erabileretara hedatuko da, eta, beste batzuen artean, bere gain hartuko du:

- a) Turbulentziak eragin ahal dezaketen oztoko-erakuntza ekartzen duten jarduerak.
- b) Argi erabilera, arriskuak sor ditzaketen edo nahasketa edo akatsa eragin dezaketen proiektugailuak edo laser-jaulkitzaileak barne.
- c) Lilura eragin dezaketen azalera handi eta oso islatzaileko erabilera ekartzen duten jarduerak.
- d) Faunaren jardueraren aerodromoko mugimendu zonaren ingurunean estimula dezaketen jarduerak.
- e) Erradiazio ez ikusgaiko iturrietako funtzionamendua eragiten duten jarduerak edo aeronautiko komunikazio, nabigazioa eta zainketa sistemen funtzionamendua oztoka dezaketen edo era negatiboan eragin diezaiaketen objektu finkoak edo mugikorren presentziak.
- f) Kea, lainoak edo aireontzietarako arriskua ekartzen duen edozein fenomeno produzitzen dituzten instalazioetako funtzionamenduak edo ezarpenak errazten dituzten jarduerak.
- g) Kirol-errealizaziorako aireko propulsioko edo eusteko baliabideak erabilera, edo beste edozein izaerakoak.

Aerosorgailuak instalazioari buruz, bere altuera handiagatik —bere palen luzera sartu behar den—, Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko araudia betetzea ziurtatu behar da. Energia elektrikoko garraio-lineetarako, telekomunikazio-azpiegituretarako, hala nola telefoniko antenak eta mikrouhin-loturak, eta, bere funtzionamenduetatik, plataforma garaietan kokatu behar diren beste egitura batzuetarako bera eman behar da.

Edozein eraikin, egitura (zutoinak, antenak, aerosorgailuak —beren palak barne direla—, horiek eraikitze beharrezkoak diren baliabideak instalatzeko —eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne direla—) edo landatzea egiteko Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (ASEA) aldeko ebazpena beharko da, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 30. eta 31. artikuluen arabera.

Salbuespenez, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 33. artikuluen arabera, nahiz eta zortasun aeronautikoei ezarritako mugak gainditu, eraikuntzak edo instalazioak baimendu ahal izango dira segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregulartasunari ez diola nabarmen eragiten akreditatzen bada, Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziaren ustez. Halako efektuetara, jarduera berriko sustatzaileek segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregulartasunari ez diola nabarmen eragiten edo apantailatze-suposizioa dela akreditatzen duen ikerketa aeronautiko batek aurkeztu ahal izango dute.

SEIGARRENTITULUA. ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK LURZORU URBANIZAEZINEAN

1.6.2. KAPITULUA. BABES BEREZIKO J1 ETA BABESTUTAKO J2 LANDA EREMUETAKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZEI BURUZKO ORDENANTZAK

1.6.2.3. artikulua. Baldintza gainjarriak dituzten eremuetan eta lurzoru urbanizaezinen azpi-mailaketan erabilera eta eraikinei ezarritako muga gehigarriak

D) Azpiegitura orokorren babes eremuak ezarritako beste muga gehigarriak:

5. Zortasun aeronautikoen babes eremuak.

P-1.1 eta P-1.1(2) "Azpiegitura orokorrak eta baldintzatzaile gainjarri gehigarriak" plano seriean grafiatuta geratu dira.

Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoei itxura egindako hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren eremuetan, eraikuntzek, instalazioek edo beste edozein jarduerak —elementu guztiak (hala nola antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipamenduak, igogailu-kutxak, kartelak, arremate apaingarriak, baita halako eraikuntzen gaineko edozein gehigarria ere), horiek eraikitze beharrezkoak diren baliabideek (garabiak, etab.), lurra edo objektu finkoak (zutoinak, antenak, aerosorgailuak —palak barne-, kartelak, etab.), baita bideko-tako edo trenbideko galiboa ere— ez dituztela zortasun aeronautikoei urratzen ziurtatu behar da, akreditatuta gera dadinik ezean, Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziaren ustez, segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregulartasunari ez diola nabarmen eragiten, zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuan begietsitako salbuespenen babesean.

Apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretuaren 10. artikuluen babesean, zortasun aeronautikoko Gasteizko aireportuaren areako luraren gaineko proiektzio ortogonalen barruan edukita azalera jarduera-muga zortasunari lotuta geratzen da. Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziak azalera hori barruan kokatzen diren jarduerak eta arrisku bat aireko operazioetarako edo irratiz instalazioen funtzionamendu zuzenerako ekar dezaketen jarduerak debekatu, mugatu edo baldintzapean jarri ahal izango ditu. Aipaturiko aukera ezarpenerako edo aipaturiko jardueren ariketarako ahalmena ematen dioten lurzoruaren erabileretara hedatuko da, eta, beste batzuen artean, bere gain hartuko du:

a) Turbulentziak eragin ahal dezatela oztopo-eraikuntza ekartzen duten jarduerak.

b) Argi erabilera, arriskuak sor ditzaketen edo nahasketa edo akatsa eragin dezaketen proiektugailuak edo laser-jaulkitzaileak barne.

c) Lilura eragin dezaketen azalera handi eta oso islatzaileko erabilera ekartzen duten jarduerak.

d) Faunaren jarduera aerodromoko mugimendu zonaren ingurunean estimula dezaketen jarduerak.

e) Erradiazio ez ikusgaiko iturrietako funtzionamendua eragiten duten jarduerak edo aeronautiko komunikazio, nabigazioa eta zainketa sistemen funtzionamendua oztopa dezaketen edo era negatiboan eragin diezaieketen objektu finkoak edo mugikorrekiko presentziak.

f) Kea, lainoak edo aireontzietarako arriskua ekartzen duen edozein fenomeno produzitzen dituzten instalazioetako funtzionamenduak edo ezarpenak errazten dituzten jarduerak.

g) Kirol-errealizaziorako aireko propulsioko edo eusteko baliabideak erabilera, edo beste edozein izaerakoak.

Aerosorgailuak instalazioari buruz, bere altuera handiagatik —bere palen luzera sartu behar den—, Gasteizko aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko araudia betetzea ziurtatu behar da. Energia elektrikoko garraio-lineetarako, telekomunikazio-azpiegituretarako, hala nola telefoniko antenak eta mikrouhin-loturak, eta, bere funtzionamenduagatik, plataforma garaietan kokatu behar diren beste egitura batzuetarako bera eman behar da.

Edozein eraikin, egitura (zutoinak, antenak, aerosorgailuak —beren palak barne direla—, horiek eraikitzeke beharrezkoak diren baliabideak instalatzeko —eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne direla—) edo landatzea egiteko Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (ASEA) aldeko ebazpena beharko da, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 30. eta 31. artikuluen arabera.

Salbuespenez, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 33. artikuluen arabera, nahiz eta zortasun aeronautikoei ezarritako mugak gainditu, eraikuntzak edo instalazioak baimendu ahal izango dira segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregularitasunari ez diola nabarmen eragiten akreditatzen bada, Aireko Segurtasuneko (ASEA) Estatuko Agentziaren ustez. Halako efektuetara, jarduera berriko sustatzaileek segurtasuna ez dela arriskuan jartzen eta aireontzien operazioen erregularitasunari ez diola nabarmen eragiten edo apantailatze-suposizioa dela akreditatzen duen ikerketa aeronautiko batek aurkeztu ahal izango dute.

Halaber, Aramaioko udal mugartearen barruan, Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen mendean ez dauden zonetan, edozein eraikin edo egitura egiteko (zutoinak, antenak, aerosorgailuak —beren palak barne direla—, etab.) eta horiek eraikitzeke beharrezkoak diren baliabideak instalatzeko (eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne direla), lurzoruen mailaren edo itsas mailaren gainetik ehun (100) metro baino gehiagora kokatuko bada, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren (ASEA) aurretiazko irizpena beharko da, aireko eragiketen segurtasunaren gaineko eraginari buruz, zortasun aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuko 8. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

1.6.3. KAPITULUA. LANDA NUKLEOKO EREMUETAKO ERABILERA ETA ERAIKUNTZA ORDENANTZAK

1.6.3.1. artikulua. Landa nukleoko eremuetako oinarritzko araubidea

1. Landa nukleoko lurzoru urbanizaezineko eremuetan, honako hauei jarraituko zaie: lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29. artikuluan xedatutako oinarritzko araubideari, eta lege bera garatzeko premiazko neurriak biltzen dituen ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 5., 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoari.

2. Aramaioko udalerrian zehaztutako landa nukleoak bat datoz 78/2009 Foru Dekretuan jasotakoekin. Aipatutako foru dekretua abenduaren 1eko da, Diputatuen Kontseiluarena, Arabako lurzoru urbanizaezineko landa nukleoetako inbentarioa behin betiko onartzen duena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, ekainaren 30ekoan, xedatutakoari jarraituz.

Hauek dira: Arexola, Arriola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Gureia, Suña, Untzilla, Uribarri eta Zabola.

3. Landa nukleoen antolamendu xehatua egiteko, Plan Berezi bat landuko da nukleo bakoitzerako, bai agiri honetan bai Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.2 artikuluan xedatutako zehaztapenei jarraituz.

4. Hona hemen landa nukleo bakoitzerako ezarritako mugak:

a) Plangintzak ezin izango du lehendik dagoen eraikigarritasunaren hazkunderik sortu, eta etxebizitza kopuruak ezin izango du lehendik dagoenaren ehuneko berrogeita hamarreko portzentajea (%50) gaintitu.

b) Bizitegi eraikinen kopuru osoa ("baserriak" eta etxeak) –lehendik daudenak eta hirigintza antolamenduan xedatutakoak barne– ezin izango da inola ere hogeita bost (25) eraikuntza unitatetik gorakoa izan.

Epigrafe honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez da etxebizitza hazkunderik joko lehendik zegoen baserri bat horizontalki zatitu eta bertan bi etxebizitza edo gehiago egitea, ezarritako baldintzak eta mugak betetzen badira.

c) Plangintzak ezin izango du ekipamendu berririk, espazio librerik eta trazadura berriko bide publikorik zehaztu; lehendik dauden mugak eta lerroakurak erregularizatzeko aukera izango da soilik.

d) Eremitan, mugaketa, onibarren erregularizazioa eta hirigintza zerbitzuen lorpena onibarren normalizaziorako prozeduraren bidez egingo da. Prozedura hori Hirigintzako Kudeaketa Araudia onartzen duen 3288/1978 Errege Dekretuan, abuztuaren 25ekoan, xedatuta dago. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, normalizazio hori egiteko gehieneko mugei egindako erreferentziari dagokionez, azalerari aplikatzekoak izango direla ulertuko da, eta ez onibarren balioari.

e) Eraikitze moduko lurzatiek, gutxienez, lehendik dagoen bide publiko batetik zuzeneko sarbidea eduki beharko dute. Ondorioz, halako sarbiderik ez daukan lurzati oro ez da eraikigarria izango.

f) Eremitarako aplikatzekoak izango dira edozein motatako lurzoruari dagozkion jabari publikoa babesteko mugak eta zortasunak.

1.6.3.2. artikulua. Landa nukleoko eremuetako eraikuntza eta erabilera ordenantzak

1. Landa nukleoko lurrak honela banatuko dira:

a) Jabari eta erabilera publikoko espazioa.

b) Partzelatutako espazioa, non, era berean, honakoak bereiz daitezkeen:

b.1) Bide publikora ematen duen aurrealderik gabeko lurzatiak:

i) Eraikinik gabeko lurzatiak.

ii) Bide zortasun bidezko sarbidea duten eraikindun lurzatiak.

b.2) Bide publikora ematen duen aurrealdea duten lurzatiak:

i) Bizitegi eraikina duten lurzati pribatuak (kontzeptua orokorrean ulertuta).

ii) Zerbitzu publikoko zuzkidurazko eraikina duten lurzatiak.

iii) Beste erabilera batzuetara zuzendutako eraikina duten lurzati pribatuak.

iv) Eraikinik gabeko lurzati pribatuak, jabetza pribatukoak edo publikokoak ondare ondasun gisan.

2. Lurzati pribatuetan a.2 azpieremuen eraikuntza eta erabilera araubidea aplikatuko da, jarraian aipatzen diren berezitasunekin eta J.3 eremu bakoitzerako nahitaezko Plan Bereziak ezartzen direnekin:

a) Bizitegi eraikinak ezin izango du hiru (3) etxebizitza baino gehiago izan.

b) Egungo bizitegi eraikinak birgaitzeko garaian (baita kalifikatutakoak eta inbentarioan sartutako eraikinak ere, ondare historikoaren arloan eskumena duen organoak baimenduz gero), eraikitako 120 m² (s) erabilgarriko etxebizitza bat (1) onartu ahal izango da, eta gehienez ere hiru (3) etxebizitza izango dira guztira. Birgai daitekeen azaleraren barnean, eraikin erantsiak sartuko dira, eranskin itsusgarriak direnean izan ezik.

c) Eraikuntza profila ezin izango dute bi (2) solairu baino gehiago eduki.

d) Gutxieneko lursail eraikigarria: 600 m².

e) Fatxadako mugaren gutxieneko neurria: lau (4) metro.

f) Eraikinek mugekiko izan beharreko gutxieneko tartekak: bost (5) metro.

g) Eraikinak, nekazaritzarekin lotutako biltegien kasuan izan ezik, fatxadek zehazten duten perimetroaren barruan 9x9 metroko laukia inskribatzeko aukera eman beharko du; era berean, hura 18x18 metroko lauki baten barnean inskribatu beharko da.

h) Lehendik dauden bizitegi eraikinak eta bizitegirako ez diren eraikinak ordeztzeko garaian, eraikin berriak eraikinik gabeko lurzatietan aplikatzekoak diren parametroak bete beharko ditu, gutxieneko lurzattia salbuetsiz.

Nahitaezko Plan Bereziak bestelakorik berariaz aipatzen ez badu, lehendik dagoen eraikigarritasuna mantendu beharko da.

i) Nahitaezko Plan Bereziak bestelakorik berariaz aipatzen ez badu, bizitegirako ez diren eraikin finkatuak ezin izango dira a.2 azpieremuetan baimendutako erabileretarako baliatu:

i.1) Bizitegirakoa.

i.2) Berariaz aipatu gabeko eraikitako etxebizitza multzoak.

i.3) Ekipamendu komunitario publikoa edo pribatua.

i.4) Bulegoak.

i.5) Hotelak.

j) Antolamendutik kanpokotzat jotako erabilerak dituzten eraikinek, edota plangintzarekin bat ez datozenek, 1.4.6.7 artikuluan adierazitako xedapenei jarraituko diete -Antolamendutik kanpo dauden eta lurzoru urbanizaezineko plangintzarekin bat ez datozen eraikinak, eraikuntzak, instalazioak eta erabilerak-.

3. Landa Nukleo bakoitzerako muga bereziak B.2. - Arau bereziak - dokumentuaren 2.1.3. kapituluaren - Landa Nukleoak - jasota daude.

BERARIAZKO ARAUAK

TITULU BAKARRA. ANTOLAMENDU XEHATUKO ESPARRUAK

2.1.1 KAPITULUA. ANTOLAMENDU XEHATUKO ESPARRUAK HIRI LURZORUAN

2.1.1.4 artikulua. Antolamendu xehatuko IB.04 esparrua

I. MUGAK ETA AZALERA

Garapen txikiko bizitegi zona, Ibarra herriaren ipar-ekialdean, zeinek Aramaioko udal plangintzaren arau subsidiario zaharretako R-6 (UE-6) eta R-7 esparruak, eta R-16 eta R-17 esparruen osotasuna biltzen baititu.

Gutxi gorabehera 13.581,20 m²-ko azalera du.

II. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

- Garapen ereduak bizitegi sarea finkatzeari begira dago.

III. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE OROKORRA / EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZ-TAPENAK

1. Lurzoruaren hirigintza sailkapena: HIRI LURZORUA.

2. Antolamendu / Kalifikazio orokorra

Esparru honen antolamendu orokorra Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-3 planoetan ezarri da.

2.1. A.2-01 zona: bizitegiak, landa lurreko herrigune zaharra.

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera landa lurreko herrigune zaharra da, Ibarra hirigunean sartutako tradiziozko motako eraikinak biltzen ditu, Atxigera baserria, eta berari buruzko arauak A.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 2. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.533,09 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: bat (1) dago eta ezin da eraiki gehiago (0).

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.2. A.5-01, A.5-02 eta A.5-03 zonak: dentsitate baxuko bizitegi zona.

Erabilera pribatuko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera dentsitate baxuko bizitegi zonak dira eta beraiei buruzko arauak A.5 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 4. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 8.462,34 m².

i. A.5-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 5.976,44 m².

ii. A.5-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 983,41 m².

iii. A.5-03 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.502,49 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak:

i. Etxebizitza kopurua, gehienez: hemeretzi (19) daude eta hiru (3) eraiki daitezke.

ii. Eraikinen inguruko gainerako baldintzak artikulua honetako azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.3. E.1.2-01 zona: bide komunikazioak (kaleak).

Erabilera pribatuko zona orokorra da; kalifikazioaren arabera bide komunikazioen (kaleak) sistema orokorra da, eta berari buruzko arauak E.1.2 zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 8. puntua).

A. Zonaren azalera, gutxi gorabehera: 1.504,93 m².

B. Zonan eraikitze baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

2.4. I-01 eta I-02 zonak: lurrazaleko ur jabari publikoko zonak.

Erabilera publikoko zona orokorrak dira; kalifikazioaren arabera lurrazaleko ur jabari publikoaren sistema orokorrak dira, eta beraiei buruzko arauak I zonetarako ezarritako arau orokorrak dira (1.3.2.4 artikulua, 15. puntua).

A. Zonen guztirako azalera, gutxi gorabehera: 2.080,84 m².

i. I-01 zonako azalera, gutxi gorabehera: 1.445,20 m².

ii. I-02 zonako azalera, gutxi gorabehera: 635,64 m².

B. Zonetan eraikitze baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

C. Zonetako jabariaren eta erabileren inguruko baldintzak: artikulua honetan azpizona bakoitzerako ezarritako antolamendu xehatuko zehaztapenetan ezarri dira.

3. Hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren estrategia

Udalaren hiri bilakaeraren eta lurzoruaren okupazioaren oinarritzko estrategian ez da ezarri esparruko jarduketan programazioan eragina duen esku hartzeko jarraibide berezirik. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren zuzeneko burutzapena identifikatzen da.

4. Garapeneko planeamendua prestatzeko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak ezartzea

Ez da ezarri baldintza berezirik.

5. Esparruan dauden sistema orokorren sarea zehaztea lortzeko edota gauzatzeko eta kostua onartzeko

Ez da ezarri baldintza berezirik.

6. Esparru espazialaren mugapen xehatua berraztertze irizpideak

Ez da ezarri irizpiderik batere, 1.3.2.5 artikuluan ezarritakoa gorabehera.

7. Ingurumena babesteko, natura artatzeko eta paisaia eta elementu naturalak eta artifizialak defendatzeko irizpideak

Halaber, 1.5.2.21 artikuluan jasotako ubideetarako atzerapenak eta 1.5.2.25 artikuluan jasotako uholdeak jasateko arriskuaren arabera lurzoruaren erabilera irizpideak bete beharko dira.

8. Sistema orokorren oinarritzko ezaugarriak eta urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea

Urbanizazio obren gutxieneko baldintza teknikoak 1.4.4.3 artikuluan ezarri dira.

IV. HIRIGINTZAKO ARAUBIDE XEHATUA/ANTOLAMENDU XEHATURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Hiri lurzoruaren kategoria: URBANIZAZIOAREN BIDEZ FINKATUTAKO LURZORUA.

Hala ere, eraikuntzako lanei ekitean frogatzen bada proposatutako eraikineko eraikigarritasun haztatua dagoeneko gauzatutakoa baino gehiago dela, lursailak kategoria hau lortuko du: haztatutako eraikigarritasuna gehitzeagatik finkatu gabeko hiri lurzorua.

2. Antolamendu / Kalifikazio xehatua

Esparru honen antolamendu xehatua Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko P-4 planoetan ezarri da.

2.1. Eraikinak, jabaria eta erabilerak

a.2 azpizonetan 1.5.2.4 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

— Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

a.5.1 azpizonetan 1.5.2.6 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

— Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke).

a.5.2 azpizonetan 1.5.2.7 artikuluan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira, ezaugarri bereizgarri hauekin:

— Eraikigarritasuna: egun gauzatuta dagoena (P-5 planotik ondoriozta daiteke), a.5.2-04 azpizonarentzat izan ezik, harentzat P-5 planotik aterako baita.

Esparruko gainerako azpizonetan 1.5.2 kapituluko berariazko artikuluetan ezarritako zehaztapen orokorrak aplikatuko dira.

2.2. Haztapen koefizienteak. Haztatutako eraikigarritasuna eta batez bestekoa

Esparruko azpizona guztietan haztapen koefiziente hauek aplikatuko dira:

- Babes ofizialeko etxebizitza: 1,0
- Etxebizitza tasatua: 1,7
- Etxebizitza librea: blokea: 3,1
- Etxebizitza librea: atxikia: 4,0
- Etxebizitza librea: familia bakarrekoea: 4,9
- Etxebizitza tasatuaren garajea: 0,3
- Etxebizitza librearen garajea: 0,5
- Hirugarren sektorea: 1,2
- Ekipamendua: 1,2
- Industria: 0,75

Hala ere, uste bada, eta frogatu, ezarritako koefizienteak ez direla egokiak azpizonetako (denak edo batzuk) egungo egoera ekonomiko eta hirigintzakerako, koefizienteak doitu edota eguneratu egingo dira egoerara egokitzeko eta berriak ezarriko dira azpizonetan eraikigarritasunak gauzatzeko egin beharreko dokumentuetan.

Azpizona bakoitzeko eraikigarritasuna (haztatua eta batez bestekoa) finkatzeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 35. artikuluko 4. eta 5. puntuetan ezarritakoa aplikatuko da.

2.3. Eraikin edota elementu berezien katalogazioa

Ez da ezarri.

2.4. Azpiegituren lerrokadurak, sestrak, ebakidurak eta eskemak

1.4.4.3 artikuluan eta P-7 planoetan finkatu dira.

3. Burutzapenerako araubide iragankorra

Ez da ezarri.

4. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta planeamenduarekin bat ez datozenak

1.4.6.2 eta 1.4.6.3 artikuluetan ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenak.

V. HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZAK

Esparru honetan ondoko dokumentuetan ezarritako zehaztapenak aplikatu behar dira: uren gaineko legeria eta EAEko ur bazterren eta erreken antolamendurako LPS (isurialde mediterraneo).

2.1.3 KAPITULUA. LANDAGUNEAK

2.1.3.1 artikulua. Arexola

I. DESKRIBAPENA ETA AZALERA

Udallerriaren erdigunean dagoen landa nukleoa. A-4023 errepidetik iristen da bertara.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 1eko 78/2009 Foru Dekretuak, zeinak Arabako lurzoru urbanizaezineko landa nukleoaren inbentarioa behin betiko onartzen duen, Arexola landa nukleo gisa sailkatu zuen. Hona hemen horretarako kontuan hartu ziren baldintzatzaileak:

- Bizitegi eraikinak:
 - Baserria: 6
 - Abadetxea: 1
 - Bestelakoak: 3
- Etxebizitza kopurua guztira: 10
- Ekipamenduak: Eliza eta hilerria.
- Beste eraikin batzuk:
 - Nekazaritza erabilerako eraikinak: 1
 - Erabilera osagarriko eraikinak: -
- Espazio lotzailea: iturria, aska eta eliza ingurua.

Mugatutako landa nukleoaren azalera: 30.420,35 m².

II. EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO ZEHAZTAPENAK

1. Erreferentzia parametroak:

Hona hemen Arexolako landa nukleoaren mugetan sartzen diren lurzatiak antolatzeko erreferentzia parametroak:

